

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IEKORAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea**

Iekorako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2020an ordaindu behar dutenen errolda behin-behinean onartu ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau udaleko iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa otsailaren 17tik apirilaren 17ra izango da, biak barne.

Ordainketa inolako kreditu erakundetan helbideratu ez duten zergadunek udalak Kutxa-banken daukan kontuan ordaindu beharko dute borondatezko epearen barruan.

Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, lekorako Udalean izapidetuko direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Iekora, 2020ko urtarrilaren 15a

*Alkate-lehendakaria*

**RAFAEL FERNÁNDEZ JALÓN**